

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Ayestarán hotelaren mendeurreneko ospakizunean izan da

Hotela 1912an ireki zen Lekunberrin eta bertan pertsonaia ezagunek hartu izan dute ostatu, Belgikako Balduino erregeak, Ernest Hemingway-ek eta Orson Welles-ek, esaterako

Viernes, 08 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [Ayestarán hotelak](#) antolatutako ospakizunen hasieran parte hartu du hotel horren lehen mendeurrena ospatzeko.

Ospakizuna ekitaldi instituzional batekin hasi da; bertan agintariak eta ehun bat udatiar nahiz adiskide izan dira, eta ospakizunek larunbatean izango dute jarraipena, 18:00etatik aurrera. Hala, duela mende bateko bizimodua birsortuko da, garai hartako jantziekin eta zaldi-gurdiekin.

Lehendakariak aipatu du "Ayestarán familiak eredu izan behar duela guretzat" gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoaren aurrean; izan ere, "100 urtetan hainbat eta hainbat zailtasun gainditu ditu", haien artean gerra zibil bat, eta "oztopo batek ere ez du eragotzi proiektuak aurrera jarrai dezan". Barcinak familiaren "zintzotasuna eta lana" azpimarratu ditu.

Gainera, aipatu du "hotelak Nafarroa unibertetsala egin duela". Bertan ostatu hartu dute, besteak beste, Belgikako Balduino erregeak, Ernest Hemingway-ek eta Orson Welles-ek, esaterako.

Yolanda Barcinak adierazpen horiek egin ditu gaur eguerdian hotelean burutu den ekitaldi instituzionalean, eta bertan izan dira ere: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin; Lekunberriko alkate José María Ayerdi eta hoteleko zuzendari María Jesús Ayestarán.

Hotelean mendeurrena gogoratzen duen bideo bat proiektatu da, eta bideo horretan hoteleko zenbait udatiarrek esku-hartzen dute. Halaber, familiako laugarren



Barcina Lehendakaria agintariekin eta Ayestarán hoteleko jabe eta udatiarrekin.



Barcina Lehendakaria agintariekin eta Ayestarán familiarekin.

belaunaldikoak diren María eta Lucía Ayestaránek, Lakmé eta Mallika-ren "El dueto de las flores" interpretatu dute, pianoan Miren Urrutiaren laguntza zutela; eta ohiko udatiarrak diren talde batek hoteleko abesti tipiko bat abestu dute.

Ekitaldia amaitzean, agintariek erakusketa bat bisitatu dute, eta bertan hoteleko une gogoangarri nagusiei buruzko dokumentuak, argazkiak eta artikuluak ikus ahal izan dituzte; bertaratutakoek, gainera, oroimenerako argazki bat atera dute.

Ayestarán hotela 1912an sortu zuten Jacinto Ayestarán eta Jesusa Garro senar-emazteek, eta egun hirugarren belaunaldiak gobernatzen du. 2011n Reyno de Navarra turismoko saria jaso zuen ostatuaren modalitatean. Sari hori Nafarroako Gobernuak ematen du Nafarroako Turismo Kontseiluaren proposamenari jarraiki.